

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Maria Solana Hezkuntza kontseilariak Etxebakoitz eskola-tailerra bisitatu du gaur

Etxebakoitz ofrezce formación profesional básica así como diversos talleres profesionales

Ostirala, 2018.eko otsailak 23

Hezkuntza kontseilari Maria Solana lanbide heziketa zikloak eskaintzen dituen Etxebakoitz eskola-tailerrean izan da gaur. Gizarte-intereseko Fundazioa da Etxebakoitz eta Hezkuntza departamentuarekin elkarlanean, oinarriko lanbide heziketa zikloa eta tailer profesionalak eskaintzen dizkie

15 eta 21 urte bitarteko gazteei, nahiz curriculum egokituko ikasketen eskaintza 16 urte baino gutxiago dituzten gazteei.

Aladino Colin Fundazioko presidentearen laguntzarekin ikastetxearen azpiegitura ikusteko aukera izan du Hezkuntza kontseilariak eta bertatik bertara ezagutu ditu han ari diren gazteetako batzuk. Izan ere, Etxebakoitzek ohiko ikasketa eredutik kanpo geratu diren edo sistema horretarako egokitzeko zailtasunak dituzten gazteekin lan egiten du, eta, beraz, gizareratzea eta gazte horiei aukera berri bat ematea ditu helburu.

Berme Sozialeko Programekin hasi ziren 1996/97 ikasturtean eta Lanbide Hastapeneko Programak ere eskaini izan dituzte, ikasleei lanerako baliagarri zitzaizen ziurtagiri ofiziala eskaintzeko.

2017-18 ikasturtean Oinarriko Lanbide Heziketa zikloa eskaintzen die 15-17 urteko ikasleei. Hala, ile-apaindegi eta estetika espezialitatetan 19 ikasle ari dira Etxebakoitzen eta bi urteko iraupeneko Elektrizitatea eta Elektronika ikasketetan, berriz, 12 ikasle.

Tailer profesionalak ere badituzte, 16 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzendutakoak. Aurtengo ikasturtean, esaterako, 13 ikasle ari dira arotz laguntzaile aritzeko tailer profesionalen.

Egokitutako curriculumeko programan beste 16 ikasle ari dira Etxebakoitzen ikasturte honetan.

Aurten Hezkuntza departamentuak 349.000 euro bideratu ditu formazio eskaintza honetara, departamentuak urtero egiten duen diru-laguntza deialdi bidez:



Bisitaren momentu bat.